

Prezio lehiakor eta eskuragarriei eustera bideratuta dago inbertsioa

EROSKI-REN PREZIO JAITSIERAK 33 MILIOI EURO AURREZTEN LAGUNDU DIE BEZEROEI 2024KO LEHEN SEIHILEKOAN

- **5.700 elikagai, garbigarri eta garbitasun pertsonalerako produkturen prezioak jaitsi ditu**
- **Sorrarazitako aurrezpenaren erdia baino gehiago marka propioak sorrarazi du**
- **Aurrezki esanguratsuena produktu freskoek kontzentratzen dute, 1.183 erreferentzia merkeagotu baititu eta ia 22 milioi euro aurrezten lagundu**
- **EROSKIk, irail honetan, 2.000 produktu baino gehiago ditu "beti prezio onak" deritzenen saskian, horietatik erdiak baino gehiago 2 euroz azpitik.**

Elorrio, 2024ko irailaren 11.- [EROSKIk](#) sendo jarraitzen du kontsumitzaileei aurrezkoa helarazten. Hori da bere politika komertzialaren lerro nagusietako bat, eta halaxe dator plan estrategiko berrian. Horrekin, 33 milioi euro baino gehiago aurrezten lagundu du 5.700 produktu baino gehiagoren prezioa gutxituta 2024ko lehen sei hilabeteetan. Bere garaian erabaki zuen kostuen igoera prezioetan gutxiago nabaritzeko inbertsioa areagotu egingo zuela; horrela, prezio lehiakorrei eta eskuragarriei eutsi ahal izan die, batez ere oinarrizko elikagaietan eta etxerako diren produktuetan.

Aurrezki horren erdia baino gehiago, zehazki 17 milioi euro, bere markako 1.100 produkturi prezioa jaitsita lortu du. Era berean, programa azpimarragarrietako bat "Betit prezio onak" deritzan saskia da: delako saski horretan, lortu du 576 produkturen salmenta zenbatekoak jaitea, eta horrek lehenaz gain 13 milioi euroko aurrezki ekarri du guztira. Denetarik duen saskia da, osasungarria eta merkea; izan ere, 300 produktu fresko dakartza: fruta eta barazkiak, arraina, haragia, ogia, arrautzak eta oinarrizko beste elikagai batzuk, hala nola esnea, jogurtak, pasta eta arrosa. Horretaz gainera, etxeko garbigarriak eta zainketa pertsonalerako produktuak ere sartzan dira.

Produktu freskoak aurrezkiaren koska

EROSKIk inbertsio ahalegina areagotu du, eta aurrezpena elikadura osasungarriari lotu dio bereziki. Horrela, produktu freskoen bidez aurrezten laguntzea lortu du: 1.183 erreferentzia eta 21,9 milioi euroko aurrezkiak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Horren ondorioz, EROSKIren erosketa saskiak %1,14ko bariazioa izan du 2024an, eta KPIaren igoera berdindu du epe horretan.

Beste prezio jaitsiera bat irailean 2.000 produkturi

Udako hilabeteak igarota, EROSKIik beste prezio jaitsiera batzuk aktibatu ditu 2.000 produktutan, hala nola elikagaiak —freskoak barne— eta etxeko eta zainketa pertsonalerako produktuak. Hortaz, "Beti prezio onak" deritzan saskiarekin biltegia berriz ere betetzeko modua dago; gainera, horietatik erdia pasak 2 euroz azpitik balio du. Horiekin batera, edozein biltegitako oinarritzko produktuen orga 70 euroz azpitik lortzeko aukera dago, eta "Eskola hasierako" kanpaina ere martxan da, deskontuekin eta interesik gabeko finantzaketekin.

Etxeko biltegia betetze eta dirua aurrezteko aholkuak udatik bueltan

"EROSKIin konturatzen gara erosketa saskia dela etxeko gastu nagusietako bat. Hori dela eta, prezio onei eusteko dugun jaitsiera estrategiaren barnean, ekimen berriak eskaintzen ditugu gure bezeroei aurrezten laguntzeko. Hala, plangintza on bat eginez, gastuak doitu ditzakete elikagai osasungarri eta aberatsei uko egin gabe", gogorarazi du EROSKIko zuzendari komertzialak, Beatriz Santosek.

Etxeko biltegia beti ongi hornitua izateko, garrantzitsua da oinarritzko elikagaiak eta erraz kontserbatzen direnak izatea. Produktu zerrenda horretan, honelakoak sartu behar dira erosketa hobeto planifikatzen lagunduko baitigute: arrain kontserbak, lekaleak, landare kontserbak, fruitu lehorrak, esnekiak... Horretaz gainera, izoztu daitezkeenak gaineratu daitezke: berdurak, barazkiak eta arrainak. Horrela, udatik bueltako promozioak eta ohiko eskaintzak aprobetxatzeko modua dago.

Era berean, bultzadaren arabeko erosketak saihestu behar dira, eta hondakinak ez sorraraztea funtsezkoa da etxeko ekonomiarako. Asteko menua planifikatu eta estrategia eraginkorrak erabiliz probetxuzko sukaldaritza egiten badugu, elikagai gutxiago hondatuko zaigu, eta errezeta goxoekin gozatzeko moduan izango gara.

Aholku ona da, halaber, sasoiari sasoiko produktuak hautatzea. Fruten, berduren eta arrainen egutegia kontsultatuz gero, menu ekonomikoagoak eratu ahalko ditugu, merkeago egoten baitira sasoiari. Hala, produktu freskoak aprobetxatu, eta kalitatea eta zaporea lortuko ditugu platerean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)